

Urtea pasa da. Hemen gaudek, eta hemen hago

MIKEL OSINAGA, FLOREN BERAZA,
GAIZKA UHARTE, GORKA OVEJERO,
OLATZ ANDUEZA, AIORA
BARANDIARAN, AMAIA ERDOZIA, XABI
MUNDIÑANO, LANDER URRIZA, EKAITZ
GABIRONDO, ALEX LOPEZ DE
GOIKOETXEA, GIORGIO ARIAS, TXARO
OTXANDORENA, OLATZ IRIZAR ETA
MIKEL MUNDIÑANO

SAKANAKO SARE

Presoen korapiloa askatzeko azken txanpa, edo azken aurrekoa, edo...

Bidean gaude eta ez dugu amore emango denak etxeratu arte!

Somatu dugu bere falta, nola ez dugu ba somatuko! Urtea pasa da eta oraindik malkoak lehortzen ez badira ere, irribarre nagusitzen hasi da Fran oroitzen dugunean. Hola behar da!

Bizitza honek eman bezainbeste kentzen digu askotan. Behin kenduta, kendutakoaz jabetuta egiten dugu atzera eta lehen lerroan jartzen ditugu konpartitutako uneak, momentuak, bizipenak...

Franen oroimenak denboran bizi irauteko denak dira zilegi.

Ez gara luzatuko. Ezagutu genuenok gordeko dugu bere memoria. Gordeko ditugu berarekin bizitako uneak, kontuak eta borrokak. Aurrera egiten lagunduko digute, bidea egiten jarraitzeko.

Berak nahiko lukeen bezala, irribarre errebelde eta maitekor batekin gogoratu nahi dugu hainbeste eman digun lagun eta kidea. Urtea pasa da, baina hark emandako guztiak gudan jarraitzen du... eta ezta gutxi Fran Baldak eman diguna!

Urtea pasa da. Hemen gaudek eta hemen hago...

Nafarroako Gizakia Helburun emakume zaintzaileak bistaratuz

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

ALDATUKO PSIKOLOGOA

Azken urteotan Gizakia Helburuk genero ikuspegitik planteamendu baten aldeko apustua egin du. Hori dela eta, tratamendua jasotzen duten emakumeei zuzendutako ibilbidea diseinatu dugu, gure langileon genero ikuspegiko prestakuntzaren bidez eta gure programen egokitzapenaren bitartez. Hala ere, kontuan izan behar dugu tratamendua jasotzen dutenak gehienbat gizonezkoak direla, baina hauek laguntzera hurbiltzen diren familiar gehienak, berriz, emakumeak.

Horregatik gure zentroetan parte hartzen duten emakume zaintzaileak ikusarazi eta laguntza iturri nagusia direla aitortu nahi dugu, askotan zainketa honek emakumeoi eskatzen zaigun genero rola mantentzen baitu, tratamendurako funtzionala baita.

Beraz, gure asmoa emakume zaintzaileek aurkezten dituzten zailtasun eta beharrei aurre egiteko programa bat eskaintzea da, ez bakarrik laguntza eredu gisa, baita emakume gisa ere. Programa honek hainbat helburu zehatz biltzen ditu, emakume zaintzaileen autoeraginkortasuna hobetzera bideratuta, ahalduntze tresna moduan. Genero ikuspegitik gizarte egiturak emakumeon osasunean nola eragiten duen uler daiteke. Historikoki emakumeoi eraikitako kokapenak gure ondorez duen eragina ulertarazten saiatu eta gure osasuna eta ongizatean eragiten duten faktoreetan parte hartzeko aukera eskaintzen dugu.

Proposamen honen bidez, Nafarroako Gizakia Helburuk bere familia esku hartzeetan genero ikuspegia txertatzeari ekin dio, orain arte antzemandako beharrari erantzuna emanez. Helburu bezala, emakume zaintzaileei dagokienean, familia artekoen harremanak genero ikuspegitik ulertuz tratamenduaren emaitzak hobetu nahi ditugu. Garrantzitsua iruditzen zaigu, beraz, zaintzaren eta hori bera gauzatzen duten emakumeen balioa areagotzea. Era berean gure auto-zainketari garrantzia eman nahi diogu, hau erraztuz eta normalizatuz.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

